



WALT DISNEY
PICTURES PRESENTS

Aladdin



Egilea: Jennifer Chorro Echevarría
Zuzendaria: Urtza Garay Ruiz
Gradu Amaierako Lana. Lehen Hezkuntzako Gradua
2014-2015 ikasturtea



Esta obra está bajo una licencia de Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional

Desertutik zihoan bere zaldian gizonak bere besoa loro bat
zeraman. Loroaren izena Iago zen eta gizonarena Yafar. Bat batean
Gazim agertu zen.

-Ondo-esan zuen Yafarrek- Emaidazu medaloia!

-Itxaron!- esan zuen Gazimek -Lehenago altxorreko nire zatia
emaidazu!

Yafarrek medaloiaren bi zatiak batu zituen eta kakalardo bat
osatzen zuten. Kakalardoa egan hasi zen eta argi arraro bat uzten
zuen pasatzen zen lekuetatik.



Yafarren eta Gazimek bere zaldien gainean aurrera egin zuten eta desertuko dumetatik agertzen zen tigre buru handi bat topatu zuten. Tigrearen begiak distiratsuak ziren.

-Topatu kobazulo horretan dagoen lanpara eta altxoraren erdia zurea izango da!

Gazim, oso beldurtuta, tigrearen ahotik sartu zen kobazulora. Bat-batean ahots bat entzun zuen hause zioena:

-Kobazulora benetan zintzoa dena bakarrik sartu daiteke!

Orduan tigrearen ahoa itxi egin zen eta Gazim Mirarien Kobazuloan desagertu zen betirako.



Hurrengo egunean, Sultanaren zaindarien ogi bat lapurtu zuen gazte bat harrapatu nahian zebiltzan. Aladdin zuen izena. Bere tximino Aburen laguntzaz, zaintzailetatik ihes egitea lortu zuen.

Aladdinek gose asko zuen, hala ere, Aladdin eta Abu tximinoa beti zeunden bere janaria behartsuekin partekatzeke.



Aladdin bere etxera heldu zen eta bertatik sultanaren jauregia begiratzen zuen, bertan nor biziko zen galdetzen zion bere buruari.



Han Sultana eta bere alaba, Yasmin, bizi ziren. Yasminen aitak alaba ezkondu nahi zuen, baina Yasminek ez zuen nahi eta ekartzen zizkion ezkongai guztiei ezetza ematen zien. Yasmin gaixoa jauregi hartan preso sentitzen zen.



Gaua heldu zen, Yasminek erropa zatarrak jantzi zituen eta jauregitik ihes egiteko prest zegoen. Abu eta Aladdin merkatuan zeuden jatekoa lapurtzen, eta ustekabean Aladdinek Yasmin ikusi zuen.

-Zelako neska polita!-esan zuen Aladdinek.

Sailtzaile batek garrasi egiten zion Yasmini: Zu bezalako lapurrak nola tratatzen erakutsiko dizut!

Yasminek gose zen ume bati sagar bat eman zion, baina ez zuen ordaintzeko dirurik. Orain arte inoiz ez zuen dirurik eramateko beharizanik izan.

Gizonak Yasmin jotzera zihoan momentuan heldu zen Aladdin eta gizona geldi arazi zuen. Ondoren Yasmin merkaturtik atera eta leku seguru batera eraman zuen.



Aladdinek Yasmin etxeko balkoira atera zuen.

-Hemen bizi zara?- galdetu zion Yasminek.

-Bai, Abu eta ni hemen bizi gara - erantzun zuen Aladdinek- Nahi dugunean gatoz eta goaz etxetik.

-Zoragarria! -adierazi zuen Yasminek.- Batzuetan jauregian preso sentitzen naiz, orain gainera aitak maite ez dudan norbaitekin ezkontzera derrigortzen nau.

Bat-batean Sultanaren zaindaria heldzen dira.

-Hor zaude!- oihukatu zuen kapitainak.

Aladdin eta Yasmin eskapatzen saiatu ziren arren, Aladdin atzeman zuten eta jauregiko espetxean sartu zuten.



Abu salto bat egin zuen eta jauregiko espetxean sartu zen.
Yasminekin ametsetan zebilen gure Aladdin askatu egin zuen .

-Berarekin ezkondu ahalko banintz.- pentsatzen zuen Aladdinek
-baina ni oso txiroa naiz...

Orduan espetxeko hormatik agure baten itzala agertu zen eta
igarobide bat ireki zen.

-Jarraitu nazazu eta printzesa maitemintzeko beste
aberastasun lortuko duzu.



Yafarrek Aladdin eta Abu Mirarien Kobazulora eramán zituen,
Aladdin kobazuloan sartzeaz zegoela Yafarren ondorengoa esan
zión:



-Gogoratu ezazu, lehenengo lanpara ekarri niri. Orduan
izango duzulako altxorra zure esku.

Aladdin eta Abuk kobazulo oso handia zela ikusi zuten.

-Begira hori! Gauza hauen apur batek aberats egingo gintuzkete.
Sultana bera baino aberatsago izango ginateke.- esan zuen
Aladdinek.

Tapiz magiko bat agertu zen orduan, urre kolorekoa zen eta
beraiekin ezkutaketan jolasten hasi zen.



Tapiza Abu eta Aladdinengana hurbildu zen.

-Zure jabeak lanpara ezkutatu du. Badakizu non?




Tapiza mendi tontor batera igotzen hasi zen, eta orduan Abuk beste haitz batean zegoen diamante bate ikutu zuen.

Orduan, lanpara ikusi zuten mendi tontorrean baina ahots bat hasi zen hizketan:

-Altxor debekatua ikutu duzue, beraz orain betirako geldituko zarete kobazulo barruan. Ez duzue eguzki izpirik berririko ikusiko.

Ustekabean inguruan zituzten altxo guztiak suzko mendi bilakatzen hasi ziren. Abuk eta Aladdinek tapizean alde egiten saiatu ziren.



Goiko aldetik Yafarrek eskua eskaini zion Aladdini laguntzeko.


-Lehenengo emaidazu lanpara- esan zion Yafarrek Aladdini.

Aladdinek lanpara eman zion, Yafarrek hartu egin zuen eta erroparen azpian gorde zuen. Ondoren Aladdini ez zion eskurik eman eta han utzi zituen Aladdin eta Abu.



-Nirea da, nirea da. Lanpararen boterearekin erreinu osoa kontrolatuko dut!

Bat-batean bere erropan lanpararik ez zuela konturatu zen Yafar. Abuk kendu zion, tximinoa eta Aladdin tapizaren gainean zihoazen.



Aladdinek lanpara igurtzi zuen garbitzeko asmoz, orduan kea irteten hasi zen eta gutxinaka-gutxinaka Genio itxura hartu zuen.

-Ui! Nire aurreko jabea baino txikiagoa zara- esan zuen lanparako Genioak

-Momentu bat - esan zuen Aladdinek -Ni zure jabea?

-Hori da- erantzun zuen Geniak- Zure nahiak betetzeko nago- ni hemen.



Genioak Aladdin eta Abu kobazulotik atera zituen, eta esan zion:
-Genio, zuk desio bat eskatu ahalko bazenu zein eskatuko zenuke?
-Nire buruaren jabe izan. Hori izango litzateke munduko edozein
magia eta altxor guztiak baino hobea. -erantzun zuen Genioak.
-Ba nik egingo dut, askatasuna bueltatuko dizut. Nire azken desioa
zu askatzeko erabiliko dut- esan zion Aladdinek.



-Egin dezagun magia apur bat. Zer da gehien desiatzen duzuna?

- galdetu zion Genioak Aladdini.

-Beno, ba... printze bilakatu al nauzu?

Genioak Aladdin printzipe bilakatu zuen eta zerbitzari ugari jarri
zituen bere menpe.



Ali printze bezala jantzita, Aladdin Agrabah merkatuan paseatu zen Abu gainean, hau elefantean transformatua izan zen. Arropa dotoreaz edertuta eta dantzariez, ezpatariez eta zerbitzariez inguratuta, Aladdin jauregiko ateetatik sartu zen.

Sultanak ongietorririk gogotsuena eman zion:

-Yasmin-en atsegineko izango dela konbentzitututa nago.

Hala ere, Yasmin-ek, bere aita berriro ezkontzen saiatzen ari zela pentsatu zuen, beraz haserretu eta joan zen. Aladdin burumakur geratu zen eta Genioak hurrengo aholkua eman zion:

-Zu zeu izan



Aladdinek printzesari jarraitu zuen eta bere balkoiraino igo zen
alfonbra magikoan flotatuz.



-Itxaron momentu batean, ez dugu lehenago elkar ikusi?
merkatuan ezagutu nuen norbait bezala zara -esan zuen
Yasminek jakin-mina eraginda.

Yasmin balkoiko eskudelera irten zen. Aladdinek irribarre egin
zuen.

-Alfonbra magikoa da, buelta bat ematea gustatuko litzaizuke?
-proposatu zuen Aladdinek.

Zalantzekin, Yasminek Aladdinen eskua hartu eta alfonbrara igo
zen.

-Merkatuko mutila zara, Banekien! - Yasminek oihukatu zuen.
Zergatik gezurra esan zenidan?

-Egia esanda, batzuetan plebeio bezala janzten naiz, baina,
printzea naiz - erantzun zuen urduri Aladdinek



Paseo magikoa bukatu zenean, alfonbrak jauregira itzuli ziren eta ustekabean, su artifizialak hasi ziren. Momentu horretan, Yasminek Aladdin-en eskua bilatu zuen.

Balkoitik sartzen laguntzen zion bitartean, begietara begiratu ziren. Alfonbrak bultzada txiki bat eman zion Aladдини Yasmini musu bat emateko.



Yafar beldur zen Yasminekin ezkontzeko eta sultanean bihurtzeko plana Aladdinen erruz hondatzea, hortaz, guardiari ordenatu zion mutila bahitu eta itsaslabarretatik uretara bota zezala. Itotzekoan zegoenean, Aladdinek lanpara heldu zuen eta Genioa agertu zenean, konturatu zen ez zegoela txantxetarako.

-Esan behar duzu: Genioa, bizitza salbatzea nahi dut.

Aladdinek buruaz baietsi zuen.

-Baieztapen bezala hartuko dut- esan zuen Genioa.



Jauregian, Yasminek zoriontsu korrika egin zuen bere aita ikustera.

-Oh aitatxoa! munduko emakumerik zoriontsuena naiz. Berri onak ditut zuretzako- esan zuen poz-pozik.

Sultanak, Yafaren sorginkeria-aren azpian zegoenak, bere alabari begiratu zuen.

-Ni ere alaba... senar bat aukeratu dut zuretzat. Yafarrekin ezkonduko zara- esan zuen.

Yasmin oso haserretuta itzuli zen Yafar begiratuaz.

-Ez naiz zurekin inoiz ezkonduko! Ali printzea aukeratu dut. -esan zuen Yasminek.



-Ali printzea joan da, gainerako guztiak bezala...- esan zuen Yafarek.

Bat-batean, Aladdin, oraindik printze bat bezala jantzita, atetik agertu zen eta Yafar traidore bat zela ezagutarazi zuen.



Aladdin bere gelara itzuli zenean, Genioa lanparatik irten zen oso pozik.

-Aupa heroi konkistatzailea! Printzesaren bihotza irabazi duzu! Zer egingo duzu orain?- esan zuen Genioak.

-Sentitzen dut, ezin zaitut libre utzi Genioa. Yasmin ezin da konturatu benetan printzea ez naizela.

Nire hirugarren desioa mantendu behar dut. -esan zuen Aladdinek nahigabetuta.

Minduta, Genioa bere lanparan berriro sartu zen.



Iago gelara sartu zen hegan eginez eta lanpara lapurtu zuen.
Yafarrek zekenkeriarekin igurtzi zuen lanpara eta Genioa irten
zen.


-Orain ni zure jabea naiz! Eman iezadazu nire lehen nahia!
Sultana izan nahi dut!-esan zuen Yafar Genioari.

Genioak ez zuen aurkerarik eta Yafar sultanaren arropekin
transformatu zuen. Baina Yafar Aladdin eta Yasmin aurrean
agertu zenean,haiek berari obeditzeari uko egin zioten.

-Nire bigarren nahia munduko sorgin boteretsuan bihurtzea
izango da- esan zuen Yafar

Yafarrek Aladdinen arropak bere jatorrizko zarpailak bihurtu
zitu.

-Begira ezazu orain zure printzeari! -Yasmini oihukatu zion.
Aladdinek tristurarekin begiratu zuen printzesari.
-Yasmin sentitzen dut.



Aladdin gainerik kentzeko grimarekin, Yafarrek Aladdin Ipar polora bidali zuen.

-Dena nire erruagatik izan da! Genioa askatu behar izan nuen egiteko aukera nuenean – esan zuen Aladdinek. Sentitzen dut. Guztia hondatu dut. Itzuli behar naiz gauzak konpontzera.

Azkartasunez, Aladdinek alfombra magikoa berreskuratu zuen eta igo zen. Batera, Aladdin eta Abu hodeien gainerik igo ziren, Agrabah-erako bidean.



Yafarren nahi guztiak beteko zirela zirudienean, Aladdin berriro agertu zen.

Bultzada batekin, Yafarrek atzera egitea eragin zion Aladdini eta Yasmin hare-erloju batean atxilotu zuen:

-Lurreko izaki boteretsuenari irabaz zeniezaiokeela pentsatzen zenuen?, Genioa gabe ez zara inor mutiko.

-Agian egia da, baina Genioak zu bizitzan osoan heldu zaitezten boterera baino askoz gehiago dauka- erantzun zuen Aladdinek.

Esaldi honen aurrean hunkituta, Yafarek ideia izan zuen.

-Nire hirugarren nahia egiteko prest nago! -oihukatu zuen-. Genioa izan nahi dut.





Bat-batean, urrezko eskuburdina itzel batzuk itxi ziren Yafarren eskumuturrak lotuz eta lanpara bat eratu zen. Yafarrek eskua luzatu zuen eta lagori heldu zion, biak lanpararen barruan desagertzen ziren bitartean.

Genioak lanpara hartu eta berriro ere mirarien haitzuloan jarri zuen. Yafarrek sorginkeriaz aldatu zuen guztian lehenago zegoen bezala bihurtu zen.

Aladdin eta Yasmin balkoira atera ziren.

-Yasmina, sentitzen dut gezurra esateagatik eta printze bat nintzela esatean -esan zuen Aladdinek.

-Ez dago arazorik; oraindik nahia duzu eskatzeagatik. Soilik esan behar duzu eta berriro printze batean bihurtuko zaitut- esan zuen Genioak.





Aladdinek bere promesa bete nahi zuen.

-Genioa, libre izan zaitez- esan zuen Aladdinek.

Orduan, eskuburdinak Genioaren eskumuturretatik desagertu ziren.

-Benetan, zure adorea frogatu didazu. Printzesa ezkonduko da berak mereziduna kontsideratzen duenarekin.- esan zuen sultanak irribarre egiten zuen bitartean.

-Aladdin, zuri aukeratzen dizut- esan zuen Yasminek hunkiturik.

Aladdinek musua eman zion printzesari, eta Genio zoriontsua zerutik desagertu zen, bere askatasunez gozatzeko prest.



Ipuin honetan agertzen diren irudi testuak helburu hezitzaile bat eduki ditzaten, Gradu Amarrerako Lana gauzatzeko erabiliak izan dira. Ipuin honek ez du erabilpen komertzial ezta dirua irabazteko asmorik. Irudiak eta testuak iturri hauetatik eskuratu dira: Walt Disney Company (1998). *Ediciones Gaviota*.

